




Iritziak

Errealitate konkretuaren azterketa zehatza



KARMELO LANDA
HISTORIALARIA

Politikaren alde zientifikoa errei-bindikatu behar dugu. Hauteskunde batetik bestera salto-salto-ka doazen politikariak fabula saltzaile bihurtu diren garai hauetan, begirada sakonagoa eta zehatzagoa eman behar diogu elkarbizitza kolektiboaren antolaketa-moduari.

Goazen konkretura. Demokrazia deritzon Espainiako Estatu hori, gaur egun benetako korporazioa da, egitura trinko eta hierarkikoa duen itxitura. Nazioen eta herrien borondateak ezin dezake modu demokratikoan korporazio horretan eragin. Barne-arau nagusiak aldaezinak dira, eta Estatuaren beraren tresneria zein parafernalia guztia erabiltzen da inposaketa bortitza legitimatzen.

Kataluniaren adibidea sobera adierazgarria da; arrazoizko azterketa hutsa eginda, edozeinek ikus dezake independentismo katalanak demokraziaren bide soila ibili nahi duela bere helburu legitimoak gauzatzeko. Bada, Espainia deitzen den korporazio horrek ukatu egiten dio aukera hori, eta ukazio hori, gainera, partekatua da korporazioaren parte diren eta sentitzen diren agente guztien aldetik. Katalunian bide demokratikoa ibiltzearen aurka agertzen dira, modu erradikalean, ez soilik Estatu aparatu tradizionalak, ez bakarrik alderdi politiko batzuk edo zenbait ideologia konkretu. Kontra agertzen dira espai-

Nola egin aurre korporazio bati, non partaide guztiek goitik beherako dogma ukaezinak inposatzen dituzten? Zer balio izan dezakete hauteskondeek, adibidez, gai nagusien inguruan alderdi guztiek portaera berdintsua agertzen badute?

niar kontsideratzen diren guztiak, modu batean edo bestean, Kataluniari ukatuz independentziarako bidea modu demokratikoan egiteko aukera.

Arazo larria dakar horrek. Gobernu bati aurre egin dakioke, eta aldatu, hauteskondeen bitartez. Alderdi bat ere, gaur nagusi izanda, bihar-etzi galtzaile bihur daiteke, eta agintetik urrundu. Baina nola egin aurre korporazio bati, non partaide guztiek goitik beherako dogma ukaezinak inposatzen dituzten? Zer balio izan dezakete hauteskondeek, adibidez, gai nagusien inguruan alderdi guztiek portaera berdintsua agertzen badute?

Espainia den korporazio horren barruan, nekez aldatuko dira Kataluniaren

gaineko pentsaerak edo jarrerak. Beste horrenbeste Euskal Herriaren gainekoak, hemen ere noizbait bide demokratikoari sakoneraino ekiten badiogu.

Gaur gaurkoz Espainia izeneko korporazio horren barruan harrapatu-rik gauden nazioek oso kontuan hartu beharko dugun errealitatea da hau.

Konplikazio hau, handia izanda ere, ez da bakarra; Espainia deritzon korporazioa, gainera, Europar Batasuna (EB) izeneko beste egitura korporatibo handiago eta sendagoan txertatua agertzen da. Estatuarteko txertaketa horrek sendotasuna ematen dio Espainiari, dudarik gabe. Ondorioz, EB bera, baldintza demokratiko normaletan, Kataluniarentzat edota euskaldunontzat lagungarri izan beharko lukeena, Espainiaren aldeko eta gure aurkako faktore bihurtzen da praktikan.

Zer egin orduan gure nazio eta herri zapalduetan? Hasteko, estrategia egoikiak errealitate konkretu honen azterketa zehatzean oinarritu, eta ez eraiki gaztelurik airean, balizko "gobernu aurrazaleak" irudikatuz Espainia horren aldaketa imajinatu. Horrez gain, norbere nazio demokratikoa eraikitzeko urrats praktikoak eman, korrontearen kontra bada ere; eta askatasun demokratikorako estrategiak partekatu, arazo beretsua dugun nazioen artean, bai Espainia barruan bai European. ●